

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO UDALA

#### Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda

Egin delarik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten egokituz jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsiko da.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ORDAINTZEKO EPEA:

A) Borondatezko epea: 2021eko otsailaren 22tik apirilaren 22ra.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2021eko otsailaren 25ean.

B.) Kobratzeko betearazte aldia: Epe hori igarotakoan premiamendu bidez kobratuko da, halaxe xedatzen baitu Zergabilketarako Araudi Orokorrak. Kobratu beharrekoari, berriz, legez ezarritako errenergua ezarriko zaio eta, hala badagokio, berandutzen interesak eta sortzen dituen kostuak ere bai.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Gesaltza Añana, 2021eko otsailaren 9a

*Alkatea*

*JUAN CARLOS MEDINA MARTÍNEZ*